Dr Buk

# XAKEAREN LAGUN TALDEA
## Hasi da partida

Noemí Valiente Sánchez - Isabel Martínez Bernat




—Zergatik igaro behar ditugu oporrak internetik gabeko herri honetan? Nondik atera dira zirin itzelak eta itsaskorrak botatzen dituzten oilo izugarri hauek?

Aitonak, bere tailerrean, txatarra piezei bizia ematen die: errege, erregina eta zaldi bihurtzen ditu, eta abenturarik onenera eramango gaituzte. Istorio sinestezin honetan, superbotereak dituzten bizikletak daude, eta borrokak xake partiden bidez konpontzen dira. Ausartuko zara gurekin etortzera?


Bazkaldu ondoren, gure gurasoek agur esan zuten. Etxerako bide luzea zuten.
—Ondo portatu aitonarekin —esan zuen aitak.
—Alain, zaindu zure arreba —xuxurlatu zidan amak.
Autoa urruntzen ikusi nuen. Ia ezin nuen sinetsi han utzi gintuztenik, bi maleta handirekin, toki guztietatik urrun zegoen herri hartan. Uda bat, munduaren


—Munduko melokotoirik gozoenak dira. Maite da jabea. Melokotoiak hartzen uzten digu. Baina haren senarrak, osaba Juliok, harrapatzen bagaitu... Ez da giro izango! Ez digu uzten bere baratzean sartzen.
Bizikletak ibai ondoan utzi genituen, eta harrizko hormaren gainetik jauzi egin genuen. Melokotoiak goxo-goxoak zeuden. Hain gozoak eta mamitsuak, ezin genuen jateari utzi. Beheko adarretan zeudenak hartzen bukatu genuenean, zuhaitzera igo behar izan genuen, goikoetara iristeko. Ni inoiz ez nintzen zuhaitz batera igo, baina Joni begiratu nion, eta ikusi nuen nola oinak enborraren korapiloetan bermatzen zituen.
—Kontuz haziekin. Ez itzazue hemen bota, bestela azken aldian bezala harrapatuko gaitu. —gogoratu zuen Malenek.
Hezurrak jaso genituen, eta hesiaren beste aldera bota. Lehian aritu ginen, ea nor iristen zen urrutirago. Jonek bazekien oso urrutira




Egun batean, Iñakirekin eta haren arreba Karmelerekin egin genuen topo, ibaiko bidean. Biak bakarrik zihoazen. Iñakik bidea itxi zigun.
—Nora zoazte? Paul, ez zarete plazara itzuli.
—Ez —erantzun zuen Paulek, apur bat ikaratuta.
74


aurka aritzeari utzi zion. Bestelakoa zirudien, txantxetan aritzen zen denekin, eta barre egiten zuen Jonen txisteekin.
Udaren amaiera oso azkar iritsi zen. Aste haiek xake partida bat bezain azkar pasatu zitzaizkidan. Gurasoak gure bila itzuli zirenean, oso triste geunden. Ez genuen handik joan nahi. Ainhize negarrez ari zen, eta egun osoa Piperbeltz besarkaturik eta oilategira begira eman zuen. Aitak eta amak agindu ziguten hurrengo oporretan itzuliko ginela. Azken egunean, xake torneo bat

**Noemí Valiente Sánchez.** Bazen behin ume bat. Aita zoragarri bat zuen —Xake Erregea—, gauero ipuinak irakurtzen zizkiona. Horrela sortu zitzaion istorioak asmatzeko bokazioa. Xake Erregeak matematiketarako grina sartu zion, eta, horregatik, bere ingeniari lanbidearekin ere gozatzen du. Neskatoa zelarik, bere lehen ipuinak idatzi zituen, eta amari asko gustatzen zitzaizkion. Arnasa horrek hegoak eman zizkion idazteari ez uzteko, asmatzeko ilusioa inoiz ez galtzeko.

**Isabel Martínez Bernat** ilustratzailea eta arkitektoa da. Madrilen bizi da familiarekin, han lan egiten du, eta ahal duen guztietan marrazten du. Egun batean ikusten baduzu andre bat metroan edo parkean zuri begira dagoela libreta batean zirriborratzen ari den bitartean, ez zaitez ikaratu.

**PVP 17,00 €**

9 788418 219214

ISBN: 978-84-18219-21-4

88 orrialde 14,8 x 21 cm. Kartoné.

Dr Buk
www.drbuk.es
editorial@drbuk.es
616 02 92 33